

# ARRASATE

## PRESS

Arrasate 1990eko Martxoak 30, 58. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean

**F. ORMAETXEA:**  
"Erreforma guztiz  
beharrezkoa da"

## EUSKARA, JALGI HADI ARRASATERA!



*Sinatze ekitaldia Monterronen*

**SASKI-NASKI**  
Lentaketa



### HOTZ - BERO

**zibro**  
**kamin TURBO**

Kanpantorpea, 2

Tfnoa: 79 70 98

79 67 54

ARRASATE



**ARRASATE TELEBISTA**

Frogatan bada ere, honez gero hasi gara emititzen. Hilabetez edo, horixe egingo dugu, frogatan emititu, Arrasateko etxe guztietan seinalea ondo hartzen dela jakin arte. Hasieran albiste saioak bakarrik emango ditugu eta, asteak aurrera joan ahala, programazioa osatuz joango gara.

Badakizu non aurkitu

## **ZURE TELEBISTAREN 23. KANALEAN, UHFen**

*Oharra: Monokanaldun antena duzuenok 23 kanaleko anplifikadorea jarri beharko diozue, ATBren seinalea jaso ahal izateko. Badaezpada ere, kontsulta ezazue zuen antena jartzailearekin.*

# ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

## Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)

Azoka kalea 1,

20.500 ARRASATE. Tfnoa: 77 05 65

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala

**Zuzendaria:** Joxe Aranzabal

**Erredakzioa:** Jon Andueza

Bego Zubia

## Publizitatea eta harpidetak:

Josune Biteri

Tfnoa: 77 08 15

**Maketazioa:** Goio Arana

**Erredakzio-kontseilua:** Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

**Kolaboratzaileak:** Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Kamele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalataikoan.

**Inprimategia:** Gertu Koop. E.

## Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

**Copyright:** ARRASATE PRESS

**Tirada:** 6.500 ale

**Lege-Gordailua:** 1124/88

**ISSN:** 0214-4654

**Frankeo kontzertatua:** 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eriztzen erantzunkizunik.



## Duintasunaren maila eta beldurrarena

Orain dela hamabost egun, gutxi gorabehera, TVEko aurkezle ezagun batek X. Arzallus elkarrizketatu zuen, arrakasta handia omen duen teleaio batetan. Ez nuen programa hura ikusi ahal izan eta, beraz, erreferentziz bakarrik ari naiteke. PNV-ko lehendakari jaunak zuhurtasun osoz jokatu bide zuen eta aurkezle ospetsuari, berak espero ez zituen erantzunak entzuten ez zituelako, ez zitzaion gustatu Arzallusen jarrera hori.

Lerro hauek idazten ari naizeanean, aste honetako "El Pais. Semanal" izenekoa daukat aurrean, hain zuzen ere, Eduardo Chillidari egiten zaion elkarrizketaren amaierako orrialdean idekita. Eta azken zutabe osoak -euskal egoera politikoari eskainitakoa- alde egiten dio kazetari, Chillidaren erantzunak entzuteko gertu ez zegoen kazetari harrigarri, alegia. Irudiegile donostiarrak zertxobait dakienak harengandik itxaron beharko lituzkeen baieztapen xeheak ditugu Eduardorenak. Hala ere, Arzallusen kasuan bezala, kazetariaren gainetik ari da elkarrizketatua... galdegilearen amorrurako.

Españiar gehienei, euren aberria dela eta, nazio-osotasunaz duten kontzeptua bisigodoen garaitik da-

torkie. Historiako testuek horrela doktrinatu dituzte eta ez dago bueltarik. Horren ondorioa da espainiar ikusmoldeetatik euskaldunok jasan dugun eta jasaten ari garen eraso. Zenbat eta zenbat bider ez zaigu gure barnea irauli, dekretuz inposaturiko erabaki edota teoria baten aurrean? Zenbat bider ez gaitu beldurrak ixilerazi, gure erreakzioa kaltegarri gerta zitekeelakoan?

Atzerantz begiratzea ariketa fisikoa besterik ez litzateke izan beharko, nondik abiatuak garen eta non gauden ohar gaitezen. Bada beste ariketa mota bat, fisikoa baino askoz garrantzitsuagoa, norantz jo nahi dugun erakuts dezakeena. Horixe da, dudarik gabe, heldu beharrekoa. beldur eta eragozpen guztiak haizatu, duintasunaren bideetatik bama, egiazko nortasun adierazgarria jaso beharko genuke, etorkizuna... etortzeke baitugu.

Lana ez da nolanhikoa. Ahalegina, berri, amankomunatua.

Eta ez naiz, soilik, estatus politikoari dagokion ikuspuntutik ari. Ordea, gizartearen sektore guztiei dagokie lan hori. ikasle, irakasle, enpresari, abade, artista, langile... denok gaude inplikaturik duintasunaren mailaz beldurrarena azpiratzeko esfortzuan.

*Josemari Velez de Mendizabal*

*inpresio ona*



inprimategi eta

autoedizio  
zerbitzuak

Ozaeta 1, Tfnoa: 76 27 41 BERGARA

**Interino eta ordezkoen  
protesta**

Idazki honen bidez Komunitate Autonomoko Irakaskuntza Publikoko ia 4.000 irakasle ez-funtzionarioek (interino eta ordezkoak) jasaten dugun egoera laburki azaldu nahi dugu eta bide batez geure eskaeren arazoak zeintzu diren aurkeztu.

Geure lanpostuaren ziurtasun-eza eta lana egiteko ditugun lan-baldintza txarrak dira irakaskuntza publikoko funtzionarietatik ezberdintzen gaituzten ezagurri nagusiak.

4.000 haueetatik herena ikasturte hasiera guztietan zein izango den geure ikastetxea jakin gabe egoten gara, normalean bertara azalduz ikasturtea hasia dagoenean. Beste bi herenak ikastetxeetan izaten diren bajak betetzeko gaude, gure kontratuak "egunekoak" direlarik (bajak irauten duen bitartean). Ez dugu oporrik kobratzeko ala gaixorik jartzeko eskubiderik eta komunitate osoan kilometroak eginten ibiltzen gara 1, 7 edo 15 egunez lana egiteko. Batzuk 3, 4, 5...8 urtez horrelako egoeran daude.

Eusko Jaurlearitzak azalduz azken proposamenak (ELA, UGT, eta CCOO sindikatoei) geure lan-baldintzen egoera tamalgarriari ez dio inongo irtenbiderik ematen, Kolektiboaren 2/3 kontutan hartzen ez duelarik eta epeka kaleratzearen mehatxua haunditzen delarik guztiontzat. Arrazoi hauengatik eta ELAK eta CCOO hartutako gure aurkako jarrera salatu asmoz, mobilizazioetara jotzea erabaki dugu, plataforma honen inguruan:

— Ez-funtzionarioen kolektibo osoarentzat, Funtzio Dozentean progresiboki sartu arte, egonkortasuna.

— Meritu-Lehiaketaren bitartez funtzionaritzan sartzea, aintzinasuna baloratuz, batez ere.

— Ordezkoentzat, lehenengo urtean ikasturte amaiera arteko kontratuak, eta gero urteko kontratuak (oporretako zatia kobratzea, bajak, etb.).

Orain arte beharrezkoak izan bagara, ez dugu uste orain sobratzen dugunik, ez dugula balio. Geure mobilizazioekin lanpostu guztiak defendatu nahi ditugu eta era berean, benetako irakaskuntza kalitatea hobetzea lortu.

Arrasateko Irakasle ez funtzionarioak

**Klarion taldeari,**

**Hezkuntza teknikoari buruz**

Arrasate Pressen 53. zenbakian idatzitako artikuluari zuzenketa bat egin nahi nioke. Esaten dutenean "... Derrigorrezko Hezkuntza burutu bai, baina gutxieneko maila gainditu beharko dute..." ez dute esaten lege zirriborroak dioena, 30. artikuluan, hain zuzen.

Orain arte horrela izan delako edo, hanka sartze nabarmena izan dute. Derrigorrezko Hezkuntza burutu ondoren, Hezkuntza Teknikoa, eta hau modulo profesionalen bidez, edo Batxilergoa egiteko aukera izango dute, orain arte bezala, baina bi aldeketa garrantzitsu ematen direlarik: aukeraketa hau 16 urterekin egin behar dela, eta ez 14 urterekin, eta Derrigorrezko Hezkuntza gaindituta euki behar dutela, hain zuzen.

Gainditzen ez dutenekin, legean ez da garbi azaltzen zer egingo den. Asmo onak besterik ez dira aurkezten. Hemen, gure bailaran, zenbait aukera gauzatzen ari gara aspaldidanik emaitza onak burutuz, baina beti irakaskuntza araututik at. Hezkuntza teknikoak, berriz, goren maila lortu du. Guk aspaldidanik, 6 urte dela inposatu genuen, IEE proiektuan, orain lege berriak proposatzen duena.

Zer irtenbide dagoen gaintzen ez dutenentzat informazio ugari dago, eta nahi izanez gero, Koldo Azkoitia edo eta Sabin Martiarturengana jo dezakezue.

Félix Ormaetxea  
Hezibideko zuzendari eta Helte-eko lehendakaria

**Garagartzako bidea**

Inguruko zikloturisten eritzien ize-nean prostesta egiten dut; dagokion aginteari jakin erazi gura diogu eta horren berri eman herriari Garagartzako elizatik Santa Agedako Ormaetxea serrerriako doan bidearen egoeraz. Erorketak, gurpil-hausturak, zulatuak, etab. gertatzen dira bide horren egoeraren ondorioz. Hain polita den ibilbidean denok gustora ibiltzea espero dugu.

Bizikletazale bat



**gili gili**

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

**IBARRA Garajea S.A.**



**EBRO NISSAN**

Garajea  
Automobil-konponketa  
Garabi zerbitzua

**HIRE**

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

**M A ARENAZA**

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa

Bizkai 1, Tfnoa: 79 08 07  
ARETXABALETA

**MARTINEZ aroztegia**

Sukaldetan  
neurri guztietako  
altzariak

Araba Etorbidea 13,  
Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41

**PAZI-OLA SA**


Zaldizpe kalea 2,  
Tfnoa 79 29 94  
ARRASATE

# Garizuman haragiuzterik egiten duzu?




**Nieves Artetxe**  
(etxeoandrea)

Bai, normalean bai. Gure gurasoengandik ikasitako ohiturak betetzen ahalegintzen gara eta azken finean sinismena dugulako.



**Rafa Fernandez Aresti**  
(langilea)

Bai, normalean egiten dugu. Sinisdun praktikanteak gara eta horrelako ohiturak bete egiten ditugu.



**Iban San Jose**  
(ikaslea)

Ez, inoiz ez dugu egin.



**Izaskun Etxabe**  
(langilea)

Ez, inoiz ez dut egin, ez dut ohiturarik.

# LENIZ

## AUTO ESKOLA



**LASTER: AUTOBUSA ETA KAMIOIA**

**ARRASATE - ESKORATZA**

*Jesus Giraldo*

## LISERI-APARATUA

X Izpiak, endoskopia

(Lagun Aro, Gipuzkoako Foru Aldundia, Prebiosa, Adeslas (Muface) eta partikularrak

Kontsultak arratsaldeetan

Loramendi 6, 2. B (Eguzki dorrea) Tfnoa: 79 04 14 Arrasate


## Memesa

### 79 42 22

# I R A T I

**Ferrerias kalea**  
**Tfnoa: 79 71 80**

**BEHARREZKO TELEFONOAK**



**ERITETXEAK**

Arrasateko Eskualde-Ospitalea .....	79 53 00
Igualatorioa .....	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak) .....	79 39 00
(emakumeak) .....	79 44 11
Buru osasunerako zentrua .....	79 90 11

**GURUTZE GORRIA**

Bergara .....	76 55 76
---------------	----------

**DYA**

Antzuola .....	76 62 91
----------------	----------

**ANBULATORIOAK**

Arrasate .....	79 13 57
.....	79 97 22
Oñati .....	78 08 52
Eskoriatza .....	79 88 96
Aretxabaleta .....	79 74 58
Aramaio .....	(945) 45 51 16

**ANBULANTZIAK**

Gipuzkoako anbulantziak .....	45 87 44
-------------------------------	----------

**UDALTZAINGOA**

Oñati .....	78 04 11
Bergara .....	76 14 69
Arrasate .....	79 14 39
Aretxabaleta .....	79 10 52
Eskoriatza .....	79 03 22

**ERTZANTZA**

Arrasate .....	79 71 99
----------------	----------

**SUHILTZAILEAK**

Udal taldea .....	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua .....	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea .....	78 28 00

**MATXURAK**

Urak (udal zerbitzua) .....	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) .....	79 05 81
Gasa .....	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78

**GARRAIOAK**

Taxiak .....	79 12 22
P.E.S.A. ....	79 14 19

**HIRUGARREN ADINAREN ZENTRUAK**

Iturbide Egoitza .....	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza .....	79 81 57

**KONTSUMITZAILEAREN ZAKO INFORMAZIOA**

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte .....	79 87 77
--	----------

**30 OSTIRALA**

- Zinea: Alai: "Ultima salida Brooklyn". 7 eta 9,30etan.
- Novedades: "Noches de Harlem". 10,30etan.
- Bertso afaria. AED elkarteak antolatuta. Gaueko 9,30etan. AED elkartearen lokaletan.
- Goardiako farmazia: A. Fluiz. Madalena

**31 LARUNBATA**

- Zinea: Alai: "Aquí huele a muerto". 5, 7,30 eta 10,30etan.
- Novedades: "Erik el Vikingo" 5, 7,30 eta 10,30etan.
- Antzerkia: "Ama begira zazu" antezlana ikusteko aukera. Aretxabaletako kultur etxean, gaueko 10etan.
- Goardiako farmazia: A. M. Morales. San Andres.

**1 IGANDEA**

- Zinea: Alai: "Aquí huele a muerto". 5, 7,30, eta 10,30etan.
- Novedades: "Noches de Harlem" 5, 7,30 eta 10,15etan.
- Goardiako farmazia: Azkoaga. Ferrerías.

**2 ASTELEHENA**

- Zinea: Alai: "Aquí huele a muerto". 7 eta 9,30etan.
- Novedades: "Noches de Harlem" 7,30etan.
- Goardiako farmazia: Español. Iturriotz.

**3 ASTEARTEA**

- Zinea: Alai: "Aquí huele a muerto". 7 eta 9,30etan.
- Gizarte eta Famili heziketarako zentruak antolatuta, produkzio zentru batera iteera. Arratsaldez.
- Goardiako farmazia: M. Corcuera. Musakola.

**4 ASTEAZKENA**

- Zinea: Alai: ez dago emanaldirik.
- Goardiako farmazia: Irizar. Erguin.

**5 OSTEGUNA**


- Zine-klub: "Conspiración de mujeres" filma ikusteko aukera. Amaia antzokian, arratsaldeko zortzi t'erdietan.
- "Ama begira zazu" antezlanaren sarrerak alde zurretik salgai. Amaia antzokian arratsaldeko zortzi t'erdietatik bederatziretara. 200 eta 400 pta.
- Goardiako farmazia: Amezua. Sta. Marina.

**IRTEERAK**

• Euskal Herriko mendizale federazioak antolatuta, **Gazte Ibilbide Neurtua**. Apirilaren zortzian, Aretxabaletan. Izen emateak, ikastetxeetako kirol arduradunei.

**IKASTAROAK**

• **Zanko ikastaroa**. Apirilaren 21ean eta 28an, Aizpurubxu taldearen eskutik. 14 urtetik gorakoentzat. Egunean bi ordu arratsaldez. Informazioa eta izen ematea, Arrasateko Gazte Zerbitzuan.




# Parques y Jardines

## PARKE ETA LORATEGIEN SORKUNTZA

## LORAZAINTZAKO MANTENIMENDUA ORO HAR

## LANDARE-BIRSORKUNTZA HIDROEREINTZAZ



Casa-Torre kalea. Tfnoa:94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)

“ Garai harteko beste Arrasatear bat ere aipatu gabe ezin utzi: Bernabe Berezibar jauna. Badakit, hemen dauden askorentzat ezezaguna dela, baina nik zinez diotsuet, euskalzaleen eta abertzaletasunaren altaran bere lekua zor zaion gizona dugula. Garai hartan guretzat benetan eredugarria izan zen gizona.

(...) Arrasate eta inguruko lurretan egin nuen berriz topo, oso ume koskorra nintzela, gurea ez zen, goierrikoa ez zen, esukalkiarekin, eta jakin nuen *marrubiak* baino *mailukiak* jaten zirela eta *ortuak* zeudela eta ez *baratzak*, eta *batu* egiten zirela eta *bildu*, etab. luze bat. Deskubrimendu honek, ikaragarriko eragina izan zuen niregan, umetan sortzen diren gogoeta metalinguistiko horietan.

(...) Mc Key kanadiarrak idatzi zidan gutun batean esaten zidan ‘*Hemen Kanadan badugu Arrasateko kooperatibei buruzko horrelako mirespen, jakinmin bat. Nire galdera berriz oso zehatza da. Nolakoa da Arrasateko kooperatibagintzaren baitan hizkuntz politika*’ Orain bi urte t’erdi Euskal Herrira etorri zenean Arrasatera etorri nahi zuela eta bertan pasatu zuen egun bat, hemen zer zegoen eta, ikusiz. Eta harrিতuta esaten zidan ‘*Eta zuek euskaldunok, horrelako ekimen handikoak izanik, halako gauza harrigarriak, hau bezalakoak, indarrean jarri izanik, nolatan ez zineten konturatu eraikuntza horren aurreneko harriekin batera hizkuntzak ere bertan behar zuela*’

(Mari Karmen Garmendiak, Euskararen erabilpena areagotzeko hitzarmena sinatzeko burutu zen ekitaldian)

Zergatik erabaki duzue Besaide ingurunea txukuntzea? Zergatik eskultura berria eta japoniar batena?



Besaïden pinuak hazten hasi zirenean, garbi ikusi zen, egunen batean pinuek monumentua ezkutatuko zutela. Une honetan Besaïdetik ez da ezer ikusten. Jendeak Besaïde monumentua jarri zenean bezala ikusteko ardura aspalditik zuen. Erakundeek gure asmoa ondo ikusten dutela jakinik eta Euskal Herriko Mendizale Elkarte-ko Lehendakaria ere, asmo horren alde dagoela jakinik, Besaïde dagokion moduan uzteko une egokia iritsi dela pentsatu dugu. Kontutan izan da orain hogeitamabost urte, mendizaleek Besaïde aukeratu zutela sinbolo gisa eta hiru probintziak hor elkartzten direla.

Besaïde garbitu ondoren, bestalde, monumentuak indar handiagoa hartuko zuela ikusi genuen. Baina kontutan izan behar da, monumentu hori 1955ean egindakoa dela eta guk oso gustoko ez ditugun zenbait sinbolo dituela, arranoa, etab. Gustatu ala ez, hori historia da eta bertan uztea pentsatu genuen. Hori erabaki ondoren, mendizaleen sentimenduak jasoko dituen eskultura jartzea pentsatu genuen. Edozein modutan, erlojuaren kontra genbiltzan, azaroan izan zen Euskal Herriko mendizaleen batzarrera proposamen zehatza eraman nahi genuen eta. Ezagutzen genituen zenbait eskultoreri gure asmoa adierazi eta jasotako hiru maketetatik japoniarrarena ikaragarri gustatu zitzaigun. Bertakoren batena egokiagoa izan zitekeela bagenekien, baina denborarik ez genuenez. Lan hori japoniarrari eskatzea pentsatu genuen.

Albaro Arregi

*Besaïde txukuntzeko asmoaren bultzatzaileetarikoa*

Onduline

TXOMIN HERIZ



eraikuntzarako materialak

Billegia: Bidekruzeta 1, Tfnoa: 79 23 18

URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3

Tfnoa: 79 87 74

ARRASATE

ESTETIKA ZENTROA

lurrundegia, opariak, jostailuak

Zarraoa

Kanpantorpea 4, Tfnoa: 79 12 19

“EDERTU”  
ileapaindegia



San Andres auzoa 79 04 28



# 89an, 4.615 langabetu Deba Garaian

1987an 4.708 baziren, 1988an 4.346 zeuden langabezia


INEMek kaleratu berri ditu 1989an Deba Garaian zeuden langabetu-kopuruaren datuak (nahiz eta herriz-herriko ikerketa oraindik ere egiteko egon).

Horrela, ondoren emango ditugun zifratan honako herri hauek sartuko lirateke: Elgeta, Bergara, Antzuola, Oñati, Arrasate, Eskoria-tza, Aretxabaleta eta Gatzaga.

Guztira, 89ko abenduan 4.615 langabetu zeuden herri horietan.

Aurreko urteekin konparatzeko, esan dezagun 85ean 4.185 pertsona-kopurua agertzen dela; 86an 4.538; 87an 4.708 (zifrarik altuena); eta bukatzeko, 88an 4.346 pertsona-kopurua aurkitzen dugula.

Konparazioekin segituz, aipatu azken urteotan gizonezkoen langabeziak beherantz egin duen bitar-





tean, emakumezkoenak gora eta gora joan dela. Horrela, 89an 1.966 gizon eta 2.649 emakume aurkitzen ziren lanik gabe Deba Garaian.

Adinei dagokienez, bai gizonez-

koetan eta bai emakumezkoetan gazteak dira oztopo gehien aurkitzen dituztenak. 25 urtetik beherako 849 mutil daude egoera triste honetan, eta era berean, baita 1.263 neska ere.

Datuak sektoreetan banatuz, zera ikusten dugu: langabetu gehien industriaren munduan dagoela, guztira 1.987 pertsona; Nekazaritzan 33; Eraikuntzan 162; zerbitzuetan 930, eta bukatzeko, aurretik inolako lanik bete ez duten pertsonak 1.503 lirateke.

Amaitu aurretik beste datu bat; askogatik, peoi lanak betetzen dituen kolektiboak izaten ditu arazo larrienak. 89an ere, 1.923 peoi aurkitzen ziren lanik gabe.



## FAGOR



**TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA**

**GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN**

**ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA**

**FELIPE  
MADINA  
ZURAK**

Zarugalde 40, Arrasate 79 13 78

**SANIDES**

Parasitoei aurre egiteko  
Intsektu, narrastiak akabatzeko,  
arratoiak barne

**URTEBETEKO GARANTIA**

Erguin kalea 11, Bis. 3. ezk. Tfnoa: 79 22 81

## Goikobalu abesbatza laguntza bila


Goikobalu abesbatza lanean hasi zenetik, parrokoak utzitako lokaletan egin dituzte entseiuak.

Baina aurreko astean, Abare-etxeko Scout, Caritas eta Katekesiko lokalak erasotu zituzten; palanka eta ostikaden bitartez 5 ate apurtu zituzten, eta duela gutxi erositako koruko hiru organo elektroniko lapurtu.

Ateak aldatzeak 250.000 pezetatik gora balioko du, eta organoek, ostera, 90.000 pezeta.

Parrokiak ahalegin ekonomiko handia egin zuen Gabonetan, orain kaltetuta gertatu diren lokalak pintatu eta egokitzeko.

Kontutan izanik bertan zenbait iharduera ematen direla, Goikobalukoek arrasatearren dirulaguntza



Itxaropentsu hasi ziren lanean, baina gauzak okertu egin dira

eskatu gura dute kalteak ordaindu ahal izateko: lehenik eta behin ateak konpontzeko, eta gero, ahal den neurrian, lapurtutako organoak

berriz erosteko.

Dirulaguntza hauek herriko hiru Aurrezki Kutxetan egin daitezke, hala nahi izanez gero.



### Anje Duhalde San Viatorren

Pasa den ostegunean, Anje Duhalde Ustaritzeko kantaria izan genuen San Viator ikastolan. Aspaldian gure herritik hurbildu gabe, IEEdo ikasleentzat eskaini zuen emanaldia. Aretoa gaztez gainezka izan genuen, eta Iparraldekoa, benetan pozik lortutako arrakastaz.

#### AEKren manifestaldia

AEKk manifestaldia antolatu du larunbaterako Iruñean, jasaten ari diren diru-laguntzen murrizketagatik. Bertara joateko autobusa Arbolapetatik irtingo da 3etan. Izen emateak Iratin, AEDn eta AEKn bertan.

#### Jose Antonio Markina

Jose Antonio Markina 19 urteko gaztea, asteazkenean hil zen, motozikletaren kontrola galdu eta Deba errekarara erori zenean. Tamalez, azken boladan gazte asko ari dira gure herrian istripuz hiltzen.

#### 61eko kintoak

Apirilaren 7an elkartuko dira, 12,30etan, txikiteoaren ostean Egipte Elkartean bazkaltzeko. Izen emateak apirilaren 2a baino lehen (deitu Angel 'Kuku', Mario Ugarte edo Angel Ayaniri).

# KiDE

## Paperdenda eta jostailudenda

Erguin 5, Tfnoa: 79 25 77 ARRASATE

**LILURA** +k  
zeure moda  
diselnatu eta sortzen  
laguntzen dizu

Zerkaosteta 5, behea.  
Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE



Mutikoak manifestaldian



Alkatea, erakasleak eta langileak

## Ferixalekuko haurren protesta

*Ikastola aldameneko obrek eragiten duten zaratagatik*

Astearte goizean ez-ohizko manifestaldia burutu zuten Ferixalekuko Ikastolako neska-mutikoek. Manifestaldi horren arrazoia, Ikastola aldameneko obrek sortzen duten zaratagatik protesta egitea.

### Barinagaren konpromezua

Irailean hasi ziren lurrazpiko aparkalekuak egiteko lanak, Barinaga promotorearen eskutik.

Lanean hasi bezain laster, oster, Ikastolak bere hasarrea erakutsi zuen, zarata ikaragarriak haurrei sortzen zizkien kalteengatik.

Lehenengo tira-bira horiek medio, Ikastolak eta promotoreak bileta bat egin zuten (non Udala bitarteko bezala egon zen), eta bertan akordio batera iritsi ziren: Barinagak goizetan makinak ez erabiltzeko konpromezua hartu zuen.

### Hitza bete ez

Itxura denez, ordea, promotoreak ez du emandako hitza bete; ondorioz, ikastolako haurrek neurri gogorak hartzea erabaki zuten, eta beraien protesta kalera atera.

Obrak aurrera darraite. Oraindik ere makina-lana 15en bat egunetan luza daiteke, ondoren fase berri baten sartuko liratekeelarik (agian zarata txikiagoz beteko duten fasea). Badirudi oraindik ere bost hilabete beharko dituztela dena guztiz bukatzeko.

Kontuak kontu, istorio guzti honen egiazko kaltetuak Ferixalekuko Ikastolako neska-mutikoak ditugu. Ikasturte guztian zehar jolasgune eskaxaz egon behar izan dira; eta hori gutxi balitz, gainera makinaren burrunbada jasan behar!

## Usteak uste...

"Zinez diotsuet gaurko hitza jaten ez badugu, euskararen normalkuntzari zutabe sendoa jarri diogula" esan zuen Mari Karmen Garmendia, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz politikarako idazkariak Monterronen, Euskararen Erabilpena Indartzeko Hitzarmena sinatu ondoren.

Historikotzat jotzen zuten DV eta Egin egunkariak aipatu hitzarmena eta beste zenbait komunikabidek ere itunaren garrantzia azpimarratu dute.

Izan ere, lehenengo aldia da Euskal Herrian horrelako borondatezko dokumentu pribatua sinatzen dena, erakunde artean honek gerora izan litzakeen ondorio guztiakin. Argi dago Arrasatek ezin duela, gaur gaurkoz, bere burua euskaldun elebakartzat aldarrikatu, gure egoera soziologikoak ez bait luke horrelakorik justifikatuko. Gauden egoerarako, aldiz, asteazkenean izenpetu zen akordioa errealista da, ez du inor mintzen (sinatzearen ondorioak gura ez dituen ez dago hor), eta helburu argi baten alde dago, euskara lan eta administrazioaren munduan sartzearen alde, alegia.

Sinatzaileek konpromiso serioa hartu dute eta datozen hiru urteetarako eskubete lan izango dute agindutakoa betetzen. Denon laguntza behar izango dute, erronka garrantzitsu bezain eder honetan airosu irten gaitezen. Ea behingoz euskara gure sukaldeetatik lantegi, ospitale, bulego, irratia eta plazara ateratzen dugun, gure Alkateak esan zuen bezala.

Joxe Aranzabal



**ARANBURU  
COTEMAR**  
Garraio agentzia




Zalditze 3, Tfnoak: 78 52 34 / 79 53 99 ARRASATE

**ARTE LENIZ**

koadro eta  
moldurak

Leintzibar kalea 4, 79 37 64 ARRASATE



## Arrasaten larrialdietarako plana

### Udalak Prosesa enpresari adjudikatu, 2 milioi pta.tan

Arrasateko Udalak, larrialdi egoeratan biztanleei ahalik eta laguntza azkarrena emateko helburua duen plan berezia burutu nahi du (bai uholdeak egonez gero, elurteak, suteak, lehortek, lurrikarak, mota guztietako istripuak, eta beste hainbat larrialditan, hain zuzen ere).

Udala kontu horietan diharduten hiru enpresarekin jarri zen harremanetan, eta hiru eskaintza heldu zitzaizkion. Hauek aztertu eta gero, azkenean lanaren ardura Bilboko Prosesa enpresari adjudikatu zaio. Proiektuak 2.000.000 pta.ko

gastua izango du, (dirudienez, %50a Jaurlaritzak ordainduko luke).

Prosesak dagoeneko aurkeztuak ditu Udaletxean ikerketaren oinarriak. Lan horiek 5 fasetan banatuko dira, honako helburu hauekin: arriskualdien zergatiak eta ondorioak ezagutzea; prest egon beharko liratekeen medioak katalogatzea (bai pertsonak eta bai materialeak); larrialdiei beharrezko erantzuna ahalik eta azkarren emateko plana burutzea; eta azkenik, plan horren barruan kokatuko diren pertsonen arteko koordinaketa ondo lotzea.

### ■ Irasuegi gose-greban

Otsailaren 26tik Alkalako espetxe militarrean preso dagoen Iñigo Irasuegik, gose-grebari ekin dio. Iñigok insumisotzat jo zuen bere burua, eta ondorioz Epaila Militarrek kartzela-zigorra ezarri zion.

Ekintza honen bidez, Iñigo Irasuegik Carlos Sanz insumiso burgostarraren egoera (biluzik daukate espetxean eta gaisorik dago) salatu nahi du.

### ■ Presoen gora-beherak

Martxoaren 22an, inolako abixurik eman gabe, Jesus M. Zabarte Ceutako espetxetik Puerto Santa Mariakora eraman zuten. Familia ezin izan da berarekin kontaktuan jarri, eta gainera, laster antzeko aldaketa berria jasango duelako susmoa dute.

Karabantxelen dauden Igor Letona eta Xabier Atxari, berriz, ikasketak burutzeko eskubidea galerazi diete, espetxeko eskola itxi egon bait dute.

### JAIOTZAK

Gil Rojo, *Sara*. 17an  
Hammada Sarmiento, *Salima*. 17an  
Sanz Martiarena, *Julen*. 17an  
Regaño Gato, *Aitor*. Martxoaren 18an  
Inurria Altune *Javier*. 18an  
Orobengoa Llodio, *Garazi*. 18an  
Elorza Lete, *Mikel*. 21an  
Vicente Navarro, *Ainhoa*. 24ean



### Ginekologi kontsulta

F. Cristobal doktorea  
Jose M<sup>o</sup> Gomez doktorea  
A. Otalora doktorea  
A. Estomba doktorea  
M<sup>o</sup> Jose Ruiz doktorea

Ana Zubizarreta doktorea: Nutrizioa, argaltzea, zelulitisa...  
Jose Luis Higura: Kirurgia, basektomia...

**Antisortzapen-miaketa, minbiziaren diagnostiko goiztiarra, bular patologia, zitologia, menopausia, haurdunaldiaren kontrola, antzutasuna, sexologia, etab.**

Lagun-Aro, Asisa, Previsa, Capisa, Diputazio eta partikularrak.

Eskatu ordua, astelehenetik ostiralera 9,30etatik 12,30etara eta 3etatik 7,15etara  
telefono honetan: 79 20 18

Zerkaosteta 17, behea

ARRASATE

# SASKI-NASKI

lehiaketa

Asteroko sariak

 Aranzabal Akobe  
elektrogailuak

DISCMAN  
SONY D-20



 MELIA BIDAIK  
Etxe Aundi jatetxea 

AFARI BAT  
BI LAGUNENTZAT

 OKIENDO  
KIROLAK

ZAPATILAK



Ikatz  
argazki etxea



ARGAZKI MAKINA  
AUTOMATIKOA



ASTE HONTAKO  
SARITUAK

GORKA KINTANA  
discman Sony D-20

MIREN LARRAÑAGA  
2 lagunentzat afaria

LEIRE ZENIGAONAINDIA  
kirol zapatilak

ESTEBE LLODIO  
argazki makina

Hileko sari handia

 OKIENDO  
KIROLAK

80.000 pta. ko kirol jantziak,  
Okendo Kirolak-ek emanak

**Galdera:**

Zer programa aurkezten dute ATBn Arantxa Lizasok eta Bittor Irigoienek?


**Erantzuna:** .....

Izen-deiturak: .....

Helbidea: ..... Herria: ..... Tlfnoa: .....



**Antonio Campos**, Euskal Herriko Ikastolen Federakundearen lehendakaria, **Gorka Knorr**, Lagun Aro Aseguruak ordezkaturaz eta **Roman Berriozabal**, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusiko Aholkularia lehen iladan izan genituen, adi-adi.



**Arrasate Pressen** ere izan genuen agintarien bisita. Bai **Mari Karmen Garmendia** zein **Xabier Zubizarreta** eta **Roman Berriozabalek** bazuten autoedizioaren berri. Apple McIntosh ordenadoreen gorabeherak komentatu eta **Goio Aran** bere pantailan emandako argibideak arretaz jarraitu zituzten. Mari Karmenek, bestaldetik, ederto asko gogoratu zituen **Jon Andueza** umea ezagutu zueneko garaiak.



**Arrasateko PSOE**k ez du Euskararen Erabilpena Indartzeko Hitzarmena izenpetu, baina **Jose Luis Mendiartx** zinegotzi sozialista Monterronen egon zen. Bere presentzia adierazgarria izan zen, eta eskertzekoa.

## Jose Aranzabal

ELEKTROGAILUAK  
Iturriotz 15,  
Tfnoa: 791516



AKOBEREren garantia eta zerbitzu teknikoarekin



FAGOR SUKALDEEN  
HORNIDURA OSOA  
OPARIGAIK

Doctor Bañez 8, Tfnoa: 791892




**L**ARRINGAN  
auto gidarien eskola  
KLASE TEORIKOA  
IRAKASLEAREKIN  
Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE

## Hitzarmena



Alkatea, Roman Berriozabal, Gorka Knorr, Mari Karmen Garmendia eta Alkain hitz eta pitzean zeuden bitartean, Jon Basterra *Egin* egunkariko erredakzio buruak Hitzarmena irakurtzen ziharduen arreta osoz. Jon *Egunkaria* sortzen taldean ari da eta orain J.R. Belokiren deia jaso du, beste profesional batzuekin batera, Eusko Jaurlaritzak atera lezakeen egunkariaren proiektuan parte hartzeko.



Hitzarmenaren sinaketa egiten ari zen bitartean, ETBkoek aprobetxatu egin zuten Jose Mari Mujika AEDko lehendakaria elkarrizketatzeko. Gero *Gaur Egunen* agertu zenean Arrasateko zinegotzi moduan aurkeztu zuten. Ezin asmatu.

Komunikabide ugari bildu zen Hitzarmena sinatzeko antolatu zen ekitaldira. Flash edo fokoen argipean pasatu ziren banan-banan sinatzaile guztiak. Argazkian Ignazio Lakuntza, Eskola Politeknikoaren izenean sinatzen.

**UDABERRI ETA UDAKO MODA GUZTIA**

**LORAMENDI KIROLAK**

**DENA KIROLA EGITEKO**

**VE ECUADOR**

Kontzesifno 2,  
Tfnua: 79 14 06  
ARRASATE

**LIBURU DENDA**


Erdiko Kale 23, Tfnua: 79 20 47  
ARRASATE

**NAROKI**



Modan jartzen ari da boxeoa? Mondragoen, Galanek bere seigarren burruka irabazi ostean, baietz dirudi. Baina boxeolari antejodun gihartsu hau **Jose Antonio Ardantza** da, Arrasateko Alkate ohia eta Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria. EAJk hurrengo hauteskundeetarako lehendakariagai izendatu duela eta, horrela ikusi zuen igandeko Deian **Zulet** karikaturagileak.

Otsailaren 24ean ezkondu ziren **Juan Antonio Martinez de Aguirre** eta **Antziñ Mendia**, eta ezta bidaiari Tenerifera hurbildu. Mila zorion!



Mutikoak, betidanik *bihurriak* izan dira. Ikus itzazue oraingo honetan ere; Monterronek zabalik edukitzen ditu sarrerako ateak egun osoan zehar, baina itxura denez, mutiko hauentzat errazegia da hori; nahiago izan zuten sekukulakoak eta bi egin horma hau eskalatzeko, lasai lasai sarreratik pasatu baino.

Jose Ignacio Etxeberria, Idoia San Sebastian, Sagrario Jauregiberri eta Manu Etxezortuk Leioako Unibertsitatean dihardute kazetaritza ikasten. Aurten 3. mailan, eta *Arrasate Presi* buruzko lana egitea bururatu zitzairen. Hori dela eta, astelehenean erredakzioan izan genituen, informazio bila.

**LASAGABASTER**

**Jantzidenda**

**Bertan izango duzu beti modako  
gauzarik onenen aukera zabalena**

Garibai 9, Tfnoa: 79 89 97





◀ Juan Guerra kasuaren ondoren, Madriliko Parlamentuan eztabaidatzen ari den politikariaren bateraezintasun-lege proposamena dela eta, *El Mundo* egunkariak zenbaiten bizibideak azldu zituen, tartean **Jose Luis Elgoro** enpresariarena. Bai jauna, Bergarako Alkate eta HBren Senatorea.

## izen propioak

■ **Esther Telleria**, 27, arrasatearra, "Jaca 98" Olinpiadetako kandidaturako medikuraduraduna izendatu dute. Estherrek medikuntza ikasketak burutu zituen Gasteizen eta Bordelen nutrizio eta kirol-medikuntza espezialitateak burutzen dihardu. Ireki berri den Nutrisan enpresan lan egiten du.

■ **Mikel Garai**, 31, arrasatearra, azken hauteskundeetatik aurrera Arrasateko Udalean EAko zinegotzia, kargua utziko du. Kontxi Etxebarriak hartuko du Mikelek utzitako zinegotzi postua. Mikelek Injinerutza ikasketak burutu zituen eta azken hiru urteetan Homa enpresan dihardu lanean.

■ **Gerardo Markuleta**, 26, oñatiarra, Madrilin zinpeko hitzultzaile agiria atera berri du. Gerardok Hispaniar Filologia ikasi zuen, Donostia eta Oviedon eta gaur Euskal Filologia ikasten dihardu. Gaur egun San Viator ikastolako Irakaskuntza Ertainetako Erreformako zuzendari akademikoa da




▲ Kazetaritza amaitu ondoren, jo eta ke ari da **Xabier Letona "Ataxi"**, han hemenka dauden kultura eta politika mailako pertsonaiak elkarriketatzen. *Larrun* aldizkarirako Josu Arenaza elkarriketatu zuen eta *Argiarako* Albisturretik hasi eta *Ardantzaraino*. Argazkian Donostiako Alkatearekin aurrez-aurre.

# prest



ZENTRO PSIKO-MEDIKOA



GIDA TXARTEL ETA  
ARMA BAIMENETARAKO MIAKETAK

J. Carlos Gerra 1, 3. Tfnoa: 77 08 96 ARRASATE



ETXE-AUNDI  
Gastapen-menua  
martxoaren 30erako

- Meloi-zuku hotza otarrainskekin
  - Ahate-konfitearen entsalada epela perretxikoekin
  - Txahal-solmoa espinaka gainean Rossini saltsaz
  - Errekako amorraina ziapetsaonez eta piper muturtxodunen saltsa
  - Gaztanbera eta irasagarrezko tarta, almendrakonpotaz
- 2.900 pztz BEZ bame

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
OÑATI

# Arrasatek euskararen aldeko apostua

## 38 elkarte, euskararen erabilpena indartzeko batu

Asteazkenean, Monterronen, Arrasateko 38 elkarteek, euren arteko harremanak euskaraz burutzeko hitzarmena sinatu zuten. Hitzarmena sinatzeko antolatu zen ekintzan, elkarteetako arduradunetz gain, Arrasateko Alkateak, Mari Karmen Garmendiak, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako idazkariak, eta Luis Villasante euskaltzainak, hartu zuten parte. Hitzarmena euskararen normalkuntzarako prozesuan aurrerapausu garrantzitsutzat jo zuten baitara hurbildu zirenek, orain arte horrelako hitzarmenik ez bait zen ezagutzen.



Ikastetxe, alderdi politiko eta bestelako entitateak ordezkaturata egon ziren

### Euskaraz iharduteko borondatea

Hitzarmena, sinatu zutenen artean, Arrasateko bizitza ekonomiko, sozio-kultural eta politikoarekin zerikusia duten elkarteak daude. Josemari Mugikak, AED elkarteak lehendakariak, hitzarmenaren borondatezko izaera honi garrantzi handia eman zion, era honetan legeak jar ditzakeen zenbait traba gaindi bait daitezke. Euskara eskakizuna izan denean-lanpostuak betetzeko eta, eskatu izan denean- eraso ugari jaso ditu, inpugnazio eta auziak jarri dira eta, baina oraingo hau elkarteek borondatez hartu duten erabakia izanik, eraso horiek gainditzeko bidean dago.

Orain arte euskaraz egiteko borondatea pertsonak adierazi izan dutela aipatu zen, baina inoiz ez erakundeek. Elkarteek euren arteko harremanak euskaraz bideratzeko konpromezu honen, gune elebakarrak sortzeko aukera

ere ematen omen du.

Arrasateko Udalak, Jokin Zaitegiren omenez egin zen osoko bilkuran hartu zuen hitzarmena sinatu eta gartzeko konpromezua. Hitzarmenaren ideia hasiera batean AED elkartearena izan bazen ere, Arrasateko Udalak ideia bereganatu eta burutu ahal izate-

### Teknikari baten laguntzarekin

Elkarteek euren arteko harremanak euskaraz gauzatzeko izan ditzaketen zailtasunak nolabait konpontzeko, pertsona bat kontratatuko da eta kontratazio horren kostu ekonomikoa Udalak bere gain hartuko du. Hitzarmena hitz hutsetan gera ez dadin, teknikari honek sor daitezkeen arazoak, gestionatu beharko ditu. Beraz, borondatea izanda, pertsona honen laguntzarekin hitzarmena betetzea espero dela adierazi zuten sinatzaileek, nahiz eta horretarako denek esfortzu handia egin beharko dutela onartu.

### Ikastolen lanari zentzua

Jose Felix Diaz de Tuestak, Udaltxeko Euskara Zerbitzuko arduradunak, hitzarmen honekin lehen aldiz, Ikastolen lanari zentzua ematen zaiola adierazi zuen. Orain arte ikastoletan haurrek euskaraz burutu izan dituzte ikasketak, baina lan mundura heltzean, gaztelaniaz egin behar izan dute beren iharduera. Hitzarmen honen bidez, Arrasaten behintzat, zenbait erakundetan lan iharduera hori euskaraz egin ahal izatea ziurtatzen da.

Hitzarmen honek, bestalde, sinatu duten elkarte eta erakundeetako partaideak euskaldundu beharra suposatzen du. Beren lan ihardueran euskaraz idatzi edo hitzegitera beharturik ikusiko bait dute beren burua.

Beraz, euskararen normalkuntza-

**"Hitzarmenaren borondatezko izaerak, legearen oztupoak gainditu eta gune elebakarra sortzeko aukera eman"**

ko gestioak egin ditu, elkarteekin harremanetan jarri, hitzarmena aurkeztu, etab. Udalak, bestalde, beste elkarteek baino ardura handiagoa duela esan daiteke, asteazkenean sinatu zen hitzarmena bete ahal izateko bitartekoak, Udalak berak jarriko ditu eta.

rako prozesuan aurrerapausu garrantzitsua eta apostu gogorra egin dute Arrasateko elkarte hauek. Edonola ere, hitzarmena ez da itxia. Parte hartu nahi duen edonork ateak zabalik aurkituko ditu eta aukera ederra izango euskararen alde apostua egiteko.



Xabier Otamendi Hotz-Bero enpresako gerentea sinatzen

## Sinatzaileak

- Arrasateko Udala
- AED elkarte
- San Frantzisko Xabier Ikastola
- San Viator Ikastola
- Umezaintza Haurreskola
- Eskola Politeknikoa
- Donostiako Aurrezki Kutxa Municipal
- AZK taldea
- Erdi Euskaltea
- Famili eta Gizarte-Heziketarako Zentrua
- Besaide Mendizale Elkarte
- San Andresko Herri-Ikastetxea
- Musakolako Herri-Ikastetxea
- Erguingo Herri-Ikastetxea
- Lagun Aro Aseguroak
- Eskoriatzako Irakasle Eskola
- Hotz-Bero enpresa
- Nekane San Migel Abokatua
- Arrasateko Institutua
- Euskadiko Ezkerra
- ELA-STV
- Herri Batasuna
- Hezibide Elkarte
- Deba Garaiko CCOO
- Deba Garaiko Udal Elkarte
- Anboto enpresa
- Arrasateko EAJ
- Lan Kide Aurrezki Kutxa
- Iturbide Egoitza
- AUKEA
- Maxi Eroski
- Mondragón Club de Futbol
- Helduen Heziketa Iraunkorreko Zentrua
- El Ferial Herri-Ikastetxea
- Eusko Alkartasuna
- Lore Gazteak Dantzari-Taldea
- Arrasateko Rugby taldea
- Gipuzkoako Kutxa

## Hamabi puntu besterik ez

Hona hemen hitzarmenean hartutako erabakiak

1. Aipaturiko entitateen elkarren arteko herremanak, ahoz nahiz idatzizkoak, beti euskaraz izango dira.

2. Entitate bakoitzeko ordezkapen-arganoetako kideak euskaraz lan egiteko gaitasuna dutenak izan daitezten ahalegina egingo da.

3. Entitateko zuzendaritza-argano bakoitzetako Idazkariak euskaraz lan egiteko gaitasuna beharko du izan, bere eginkizuna euskaraz bete ahal izan dezan.

4. Entitate bakoitzeko zuzendaritza-arganoen aktak euskaraz idatziko dira preferenteki.

5. Hitzarmena izenpetzen duten entitateekiko arazoei buruzko espedienteak oso-osorik euskaraz tramitatuko ditu entitate bakoitzak azken ondorioetarako.

6. Entitate sinatzaileak euskara aha-

lik eta gehien erabiltzen saiatuko dira beren funtzionamenduko esparru guztietan, horretarako beharrezko baliabideak ezarriz.

7. Bere lanbidean euskaraz egoki moldatzeko beharrezko ezagupen teknikoak bereganatuz joango da entitate bakoitzaren menpeko pertsonala.

8. Konpromezu hauek, hasteko, hiru urtetarako hartu dira.

9. Denbora horretan, elkarturiko entitate bakoitzak behar dituen oinarriko testu, estatutu, funtzionamendu-arau, kontratu, poliza eta beste dokumentu teknikoak euskaratzearen ondoriozko kostu ekonomikoa Udalak bere gain hartuko du.

10. Hitzarmenaren jarraipenez eta betetzeaz ardurauko den teknikaria kontratatzearen kostu ekonomikoa Udalak bere gain hartuko du.

11. Hitzarmena irekia dago beste edozein entitaterentzat.

12. Euskaltzaindia eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusia hitzarmenaren gainbegirale izango dira.


**AUTO  
ESKOLA**

**ARRASATE**

**7etatik 8etara klase teorikoak**

Olarte kalea 30, Tfnoa: 79 89 89 ARRASATE

# Lagunak Oro Lagun Aron



Enpresakoak

Ondasunetakoak

Pertsonalak

Nekazaritzakoak

**Lagun Aro Aseguruetan** gure herriari konfidantza osoa eskeini diegu, eta berak, gogotik igorri digu. Horregatik, gure ahalmen aseguratzailea hobetzen saiatzen gara, Euskalerriko bezero guztiei zerbitzu onena emateko asmoz.

**Lagun Aron** poliza mota zabala daukagu, estaldura sendoenekin, une bakoitzean klienteei seguritate gorena eskeintzea posibilitatzen diguna.

**Lagun Aro** Europara begira dago, europar sendietatik % 20a aseguratzen duen Europako Kooperatiba Aseguruen Elkarteko partaide bezala.



**LAGUN ARO**  
SEGUROS ASEGURUAK

# “Erreforma guztiz beharrezkoa da”

Felix Ormaetxea, Hezibideko zuzendaria azken 10 urteotan

52 urteko arrasatear honek, ia bizi osoa eman du hezkuntz munduari lotuta.

Ameriketara hamar urte eman zituen lanbide-eskolak sortzen Euskal Herrira itzuli eta Eskola Politeknikoko egoitzan aritu zen. Irakasle Eskolako lehen zuzendaria, 80.etik hona Hezibideko zuzendaria da

— Arrasate Press: Zer da Hezibide, noiz sortu zen, zein helbururekin?

— Hezibide, Eskola Politeknikoa sortu zenean sortu zela esan daiteke. Denboraren poderioz, beste zenbait ikastetxe ere sortu ziren eta euren arteko harremanak sendotzea interesgarri ikusi zen, elkarri esperientziak trukatuz, lagundu eta denen artean proiektu berriak gauzatzeko. “Liga de educación y cultura” zena, Hezibide bihurtu zen, beraz, 1980. urtean. Gaur egun Hezibiden, hamar ikastetxek hartzen du parte. Herriarekin harreman estuak sortuz, kalitatezko hezkuntzaren bidez, herriari zerbitzea da gure helburua. Hezibidek, taldea ordeztuz, kanpoko erankundearen aurrean gestio-lanak egiten ditu, beren hezkuntza hobe dezaten, zentrueri tresna teknikoak eskaintzen dizkie eta elkarren artean zenbait proiektu gauzatzeko.

— Edonola ere, Hezibide ez da oso ezaguna, ezta?

— Bai, azken batean, zentruetara dutelako protagonismoa. Hezibiden asko errespetatzen da zentru bakoitzaren autonomia.

— Zein da Gizabiderek duzuen harremana?

— Gizabide, Hezibiderekin batera sortu zen 1980. urtean. Hezibidek bultzatu nahi dituen proiektuak gauzatzeko baliabide ekonomikoak behar ditu. Gizabide fundazioak kooperatibek, enpresa pribatuek eta gizaba-

riekin ematen dituzten baliabide ekonomikoak jasotzen ditu. Baliabide ekonomikoak jaso eta proiektu eta beharren arabera banatu egiten ditu. Hori da bereiztasun garrantzitsuena.

— Zein eritzi du Hezibidek Irakaskuntzaren Erreforma?

— Guk Erreforma duela sei urte bultzatu genuen. Dutarik ez dago, orain sei urte hasi baginen beharrezkoa dela pentsatzen dugula. Guk eman ditugun pausuak, orain legea gauzatzera dator. Hor dugu legearen zirriborroa eta esperimentera onartuta zegoena, legeak bedeinkatu egiten duela esan daiteke. Beraz, aurrerapausu bat emana dugu guk.


— Zergatik da Erreforma beharrezkoa?

— Hezkuntz sistemak di-

“Europako herri bat izateko gure hezkuntza Europakoarekin parekatu behar dugu”

namikoa izan behar du. Beste nazioetan 70. hamarkadan eman zuten pausu hau. Erreformarekin, hezkuntza tekniko eta BBBren artean, ematen zen etena puskatu nahi da.

Erreformaren bidez, 16 urte arte, guztiak hezkuntza antzerakoa jasotzea lortu nahi da. Denak batera, baina orientabide prozesu baten ondorioz, gai izan daitezken, etorkizunerako aukeraketa ona egiteko. Momentu hone-



Félix Ormaetxea

tan, denek teknologia ikusi ondoren, egiten dute aukeraketa, eta denek ikasketak gaituzten dituztela.

— Gaituzten ez dutenekin beraz, zer gertatzen da?

— Legeak, aipatu egiten du arazoa, baina ez dio irtenbide garbirik eskaintzen. Edonola ere, Deba Garaian, harreman estuak ditugu Udalekin, Udal Elkartearekin, etab. eta zenbait irtenbide eskaintzen zaie. Lanbide Hastapena delako programa hor dago, Lanbide Heziketa programa ere hor dago eta

rako orduan, langabezia kontutuan izaten da. Ezin esan daiteke faktore honek hautaketa erabat baldintzatzen duenik, norberaren nahi eta ahalmenak ere garrantzia dute, baina neurri handi batean eragiten. Zehatz mehatz ezin esan daiteke gizartearen beharrak zeintzuk diren, aurreprebisiio batzuk egiten dira, baina... Edonola ere faktore hauek kontutan izaten dira karrera hautatzean.

— Gonbaratuko dituzu hemengo heziketa eta Europaren ematen dena?

— Europaren, 70. hamarkadan heziketa hobetzeko ahalegin handia egin zen. Heziketari, baliabide ugari eskaintzen zaio, PIBaren %7,5a, hain zuzen ere. Hemen, berriz, %5era ere ez gara heltzen. Azken urte honetan ahalegin handia egin da. Edozein modutan ere, 70. hamarkadan egin zena han gaituztena dago eta gu orain ari gara maila horretara iristen. Gure helburua Europarekin parekatzea da eta horretan gaituztena. Europako esperientziak ikusten ditugu, hona ekartzeko. Europarekin ez bagara parekatzen, Europako kolonia izango gara eta ez Europako herria.

Lantegi Eskolak ere esperientzia interesgarria eskaintzen die ikasketak gaituzten ez dituzten neska-mutuei.

— Gizartearen beharrei erantzuten die, ikasleek ikasketak hautaketak?

— Orain hamar urte arte, jendearen helburua Unibertsitateko ikasketak burutzeko zen, zein karrera ikasiko zuten gehiegi pentsatu gabe. Gaur egun, hautaketa egite-

# V. Igoera Gorlara




1

Igandean antolatu zen Gorkako igoeraren V. edizioa, 90eko Euskadi Mendi Txapelketarako baliozgarria den lehenengo zita. Zaletu ugari bildu zen bertara, seguraski autoen munduak eskaintzen duen ikuskizun apartekoagatik. Elkarren kontra 23 pilotu, 23 makina.




3

Adituen ustetan, Vilarrioren etsai gogorrena Aitor Zabaleta bergararra. 89an Euskadiko Mendi Txapelduna, eta Bergaratik Gorkara doan bidea ederki asko ezagutzen duen gizona. Aitorrek ere LOLA-BMW barketa erabiliko du aurten. Bazeukan, bai, bere zaletuen aurrean gauza politik egiteko gogoia, baina...




2

Probaren 5 kilometro eta pikuak betetzeko faborito nagusia, **Andres Vilarriño** Donostiarra. Andres Europako Mendi Txapelduna izan genuen 89an, eta igandean LOLA-BMW barketa erabili zuen Gorkan.



4

Igandean ederto bete ziren pronostikoak. Bai lehenengo mangan eta bai bigarrenen, Andres Vilarriño izan genuen nagusi. Bere atzetik, noski, Aitor Zabaleta. Donostiarrak 3 segundu aldea atera zion bergararrari



Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)  
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

**Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak**  
**Otzaratzarrak**  
**Giltzak gordetzeko armairuak**  
**Erremintak eramateko gurdiak**  
**Erremintak gordetzeko armairuak**  
**Lan egiteko aulkiak**

**Osorik pub**

Ignazio Zuloaga kalea Arrasate

## p o d i u m a

**Xabier Lazpiur, edo profesionalismoaren ametsa**

Xabier Lazpiurrek 20 urte ditu; Aretxabaletan bizi da. Eta azken boladan harri eta zur utzi ditu txirrinduaren zaletu guztiak, denboraldiari eman dion hasierarekin.

Xabierrek Dorletako Ama Txirrindulari Eskolan ekin zion kirol hau lantzeari. "Bost urte eman ditut han, eta egia esan, oso ondo tratatu ninduten. Baina pasa zen urtean hainbat talde etorri ziren nigan eskaintza ezberdinekin; guztiak aztertu, eta azkenean, Kaiku-Gurelesara joatea erabaki nuen."

Kaiku-Gurelesa, afizionatu mailako indartsuenerarikoa da. Diru asko eman dute talde sendoa osatzen, eta horrek arriskua suposa dezake, emaitza onak eskatzearen arriskua. "Hala da, bai. Baina txirrinduaren munduan gauzak aldatzen hasi dira, eta gaur egun, afizionatu talde gehienek helburua ez da gazteak erretzea, biharko eguneko profesionalak ondo prestatzea baizik. Alde horretatik, oso gustora nago talde berrian."

Bide horretan, denboraldiak ego-kiro planifikatzea ezinbesteko kontua ari da bihurtzen; eta Xabierrek argi dauka lan horretarako Xabier Padillak konfidantza osoa merezi diola. "Dorletako Ama taldean egindako azken hiru urteak Xabierekin eman nituen; eta Kaiku-Gurelesara joan nintzenez argi



esan nien planifikazioa Padillarekin egiten jarraituko nuela."

Itxura denez, erabaki zuzena hartu zuen Xabierrek, denboraldi hasieran kamera dotoreak ari bait da egiten. "Neu naiz lehenengo harrina. Xabierrek eta biok denboraldia prestatu genuenean, zita jakin batzuei begiratu genien: Bidasoako itzulia, Biakaiko itzulia, eta antzeko batzu. Horregatik, Gorlako igoeran hain erraz irabaztea... ba ez dakit nik zer pentsatu!"

Askok eta askok izan dira Xabierri etorkizun ederra somatu diotenak. ADOtik ere eskaintza tentagarria heldu zitzaion. "Diru aldetik benetan eskaintza ederra, baina ia ia monastegi bizitza exigitzen zuten, gaurtik Olinpiadak heldu arte geldi Madrilen euren esanetara. Hori ikusita, uko egin nion."

Uko egin zion, eta dagoeneko buru-belarri murgildu zaigu bere ametsa borobiltzeko lanetan. "Ametsa? Profesionalismoa. Hori bai, gauzak polito, astiro, zentzu onez eginda."

**Uzarragako igoeraren XV. edizioa**

Apirilaren 1ean, igandea, goizeko 10etan emango zaio hasiera Antzuolan Uzarragako txirrindulari igoeraren XV. edizioari.

Txirrindulariek 74 kilometro bete beharko dituzte, honako ibilbideari eutsiz: Antzuola, Bergara, Antzuola, Bergara, Oñati, Bergara, Antzuola, Bergara, Soraluze, Bergara, Antzuola, helmuga Uzarragako mendatean kokatuko delarik.

Proban gazte mailako txirrindulariek hartuko dute parte; eta besteak beste, hantxe izango ditugu Jose Luis Olivenza eta Xabier Garciak zuzentzen dituzten Lagun Aro-Fagorreko txirrindulariak.

Ayastui Peña izan dugu igandeko karreraren antolatzailea.

Eguraldiak laguntzen badu, beraz, gogoratu aukera polita izango dugula gure gazteen maila eta kalitatea hurbiletik jarraitzeko.

**LA UNION**

Garaje elektro-mekanikoa  
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe 2,

Erakusketa: Sancho Abarca 6,

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



**E D E L  
TAPIZTEGIA**

Gortina  
Alfonbra  
Koltza

Bidakruzeta 14, Tfnoa: 76 16 25  
BERGARA

# 1989ko autorik salduenak

Iazko urtea aparta izan da auto berrien salmentari dagokionez. Baina modelo gehienok gorakada izan badute ere, batzuen oso nabarmena izan da. Hona hemen, bi ataletan, autorik arrunten salmentak azken bi urteotan izan duen bilakaera:



Lehen atalean, aipagarria da Corsa eta R-5 berteranoek erakusten duten kementa. Bigarrenean ez dago sorpresarik, kaminuetan ikusten duguna garbi isladatzen da. Leku faltaz argitaratu gabe geratzen zaizkien ataletan, R-21aren nagusitasuna da azpimarragarri hirugarren atalean. Laugarrenean, berriz, Audiren motelketa eta atalaren perfil orekatuagoa.

Eta, oro har, Renault-en lehenetasuna eta inportazioko autoen presentziaren indartzea aipa daitezke.

Mikel Intxausti

# Gorka

ILEAPAINDEGI MIXTOA



Bainetxe kalea 10, behea. Tfnoa: 79 96 80 eta 79 63 27  
ARETXABALETA

# PEÑACOBA

Auto-Eskola

Zarugalde, 46  
79 14 01

ARRASATE

# BASABE JATETXEA

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak

ARETXABALETA

# ORTZI erretegia

Angiozar auzoa  
Tfnoa: 76 22 68  
BERGARA

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI  
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....  
HELBIDEA.....  
HERRIA.....

Azoka kalea 1, ARRASATE Tfnoa:77 08 15

# ARRASATE PRESS

77 05 65



# Markiegik estiloZ bete du

## 50 urte

MARKIEGIN 50 URTEZ  
GEROZTIK GAITUZU  
GIZONEZKOAREN MODAN  
ADITU.  
JANTZIAREN HIZKUNTZA  
GEUREA DUGU:  
BISKOSAREN IRADOKIA,  
AMUKO LASAIA, ZIMURREN  
MISTERIOA, ESTANPATUAREN  
ZIRIKA.  
BENE BENETAKO NORTASUN  
ETA ESTILOZ JAZTEKO MODA.  
ZORIONTSU GARA MARKIEGIN,  
50 URTE ESTILOZ BETE  
DUGU ETA.



## Hizkuntz sistemaren Erreforma. Edukiak (V)

Erreformarekin, lehen baino gehiago edo gutxiago jakingo dute gure ikasleek? Zer jakingo dute? "Gero eta gutxiago dakitela dirudi."

Galdera eta zalantza guzti hauek hezkuntz prozesuarekin batera agertzen dira, eta Erreformarekin batera ere agertuko dira. Halere, erantzun simple bat ematea ez da erraza.

Eskola bakoitzak — aurreko artikuluetan esan genuenez — zer irakatsi, noiz irakatsi eta nola irakatsi definitu behar du.

Bestalde, ikaslearen aldetik aprendizaiaren esanahikorren eraikuntza (hau da, aprendizaiaren berria aurrez ezagutzen duenarekin lotzeko gai izatea, eta egoera ezberdinetan bere ezagupenak aplikatzeko gai izatea) ziurtatu behar du irakasleak. Areago: irakasleak beharrezko tresnak eskaini behar dizkio ikasleari bere kasa ikasteko.

Guzti honen arabera, zein paper betetzen dute edukiek? Garrantzitsuak dira ala ez?

Esaten ari garen testuinguruan planteatu behar dira edukiek: ikaslearen arabera, bizi den gizartean moldatzeko behar duenaren arabera definitzen ditu eskolak edukiek, eta ikasleak bere kasa ikas dezan eskolak bide egokiak jartzen ditu.

Beraz, zein eduki behar duen ikasleak, eta zertarako, pentsatu behar da. Edukiak irakasten, ikaslea kultuagoa izango dela jotzen dugu; edo prozedurak (hau da, ezagutzatresnak) irakatsiz, arazoei bere kasa irtenbidea aurkitzeko trebeagoa izango dela uste dugu; jarrerak eta baloreak irakatsiz, bizitzari aurre egiteko ahalmena ikaslearengan pizten dugula pentsatzen dugu.


Edukiak baliogarriak diren edo ez, bi gai hauen arabera ikusi behar:

zer eta zertarako. Badaude oinarriko edukiek, haurrak momentuan edota ondorengo aprendizaiaren egiteko behar dituenak. Eta badaude beste batzuk, gutxirako balio diotenak. Bestalde, errealitatea ezagutzeko eta deskubritzeko, eta bera hartzeko, haurrak teknikak eta tresnak behar ditu. Eta haurrak jarrerak eta baloreak ere garatu behar ditu.

Beraz, aprendizaiaren memoriakoak eta mekanikoak eskolaren helburu bakarra izatea ez da bidezkoa. Konkurtso horietako irudiak, non partaideek jakintsuak diruditen, ez dira guztiz baliogarriak eskolarako. Eskolak, haurrak buruz ikasi eta berehala ahaztuko dituen edukiek bakarrik ez ditu irakatsi behar. Prozedurak, baloreak eta jarrerak ere, eskolako curriculumaren zati dira.

*Klarion taldea*

**Felipe  
Arrizabalaga**  
aroztegia



Legarre pabiloia Tfnoa: 79 22 76 ARRASATE

**SANIDES**

Parasitoei aurre egiteko  
Insektu narraztiak akabatzeke,  
arratoiak barne

URTEBETEKO GARANTIA

Erguin kalea 11, Bis. 3. ezk. Tfnoa: 79 22 81

## ARRASATEKO UDALA


HERZKUNTZA SAILERAKO TEKNIKARIA urtebeterako kontratatu nahi da. Eskabideak aurkezteko epea apirilaren hamaikan amaitzen da.

# Nerabeak eta inguruaren garrantzia

**N**erabeen osasun-arazoez arduratu izan dira osasun publikoko zerbitzuak; eta azterketa gutxi egin denez, datu gutxi dugu gai honi buruz. Azken urte hauetan, ordea, kezka handia sortu da; izan ere, istripuak, suizidioak, venerear gaixotasunak, drogen kontsumoa, abortoak, etab. nabarmenki gehitu bait dira populazio honetan.

Ingurugiroa eta gizartearen bizi-tzeko estilo ezberdinak guztiz erabakior eta mugatzaileak dira gure gazteentzat, ohitura eraginkor edo kaltegarriak sorterafterakoan, behintzat.

Ezaguera, joera eta jokabideak aukeraterakoan, haurrak eta nerabeak hainbat eredu hartuko du gizarte osotik: telebistatik, prentsatik, publizitatetik, bere ingurunean ez bakarrik gurasoengandik, baita irakasle, sanitaterako profesional edo



maitatu eta miresten dituen idoloengandik ere. Beraz, influentzia edo eragin ugari jasotzen du gaur egun gazteak eta guzti hauen bitartez moldatzen du bere nortasuna.

Horrela, bada, heziketa eraginkorra edota portaera ezegokia aldatzeko pertsuasioa eraginkorrak izan arren, garbi ikusten da ez dutela eragin handirik izango ziur aski, ingurugiro sozial eta komunitarioak eta

taldeak ez badute gizabanakoa horretara bultzatzen.

Osasun-heziketak ez du gizakientzat bakarrik izan behar, ingurugiroan beharrezkoak diren aldaketak bultzatzea derrigorrezkoa bait da. Eta aldaketa hauek ematen ez badira, aurrerapen eskasa lortuko da. Kampaina eta aholkuek ezer gutxitarako balioko dute inguruak laguntzen ez badu.

*Eukeni eta Arantxa*

## AMA BEGIRA ZAZU...

### antzerkia

**Apirilak 7, larunbata, gaueko 10,30etan**

#### SARRERAK

Aldez aurretik salgai (*Antzokian bertan*)

ondoko egun eta orduetan:

- martxoak 29, osteguna 8etatik 9etara
- apirilak 5, osteguna 8etatik 9etara
- martxoak 31, larunbata 6etatik 8etara
- apirilak 7, 6etatik 8etara

#### PREZIOA

Aldez aurretik 400 pta.

Gazte-txartelarekin 200 pta.

Takilan 500 pta.

Gazte-txartelarekin 300 pta.

#### ANTOLATZAILEAK

Arrasateko Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia



## Cicle-90: Bilboko Erakustazokan

Aurreko artikuluan aipatu nizuen bezala *Cicle-90* programa eta erakusketa ikusteko parada izan dugu San Jose eguneko asteburuan. Sarrerak 500 pta. balio zuen helduentzat eta gazteentzat 250 pta. Dena den, gonbite-xtartelaz sartuz gero, %50eko deskontua.

Sartu eta egundoko panorama: jendea frango eta bizikletak zertan esanik ez dago. Nobedade ugari, denetik ikus zitekeen. Marka ugari: hemengo gehienak (ez ditut aipatuko) eta gero Ipar.Amerika, Holanda, Italia, Alemania eta Britania Haundiko hainbat erakustoki.

Azken urteotan eman diren aurrerapenen berri eman gura izan digute bizikletaren merkatariek. Ho-



CITY-CRUISER Damen

Alemaniatik ekarritako bizikleta sendo eta handiak

nekin batera berrikuntzak azaldu eta kanpoko hainbat bitxikeria agertarazi. Horren lekuko Californiatik ekarritako bizikleta tolesgarria:

ezerezetik galanta egitera. Sinistu ere zaila egiten zaiguna: horretarako bideo-zinta bat jarri eta azalpen guztiak agertzen zizkizuten.

Honetaz gain, bazegoen zer ikusirik: trial-sin antzekoa, bizikleta jauziak, neska-mutilen erropa-erakusketak, modeloak, etab. goiza edo arratsaldean pasatzeko leku ederra.

Europa zaharreko azken bizikleta-modeloak: Alemaniako mendiko bizikletak, Italiako karreretako bizikleta dotoreak.

Noiz helduko ote Euskal Herrira Europa zaharreko bizikleta sendo eta beltz liluragarriak?

K. U.




## HIRU S. A. MEKANIZAZIOAK

- *Doitasunezko mekanizazio plano eta langileen arabera*
- *Fresatzeko makinak*
- *Zenbakizko kontrola*
- *Mekanizazio-zentroak*
- *Tornuak*
- *Artezko makinak, etab.*

Zaldispe kalea 10, ARRASATE

Tfnok: 79 67 80 / 79 05 61 Posta kutxa 95. Telefax: 79 80 97

Apartamentuak  
ikusteko  
bisita-bidaia  
antolatuko ditugu  
asteburuetan



## ETXEBIZITZA-MULTZOAK COSTA DORADAN (SALOU, CAMBRILS, MIAMI)

- Itsasotik ondo-ondoan
- Antena parabolikoa
- 1 eta 2 logelako apartamentuak
- Pizkina eta kanpoko aparkalekua

  
**Les Gavines**

**HIPOTEKAZKO  
MAILEGUA**  
10 URTETARA %13'75 can

  
**Manuel Niñerola**  
Grup inmobiliari, s.a.



INFORMAZIOA



**Anboto**

INBERTSIOAK ETA ZERBITZUAK / INVERSIONES Y SERVICIOS  
AHOLKULARI INMOBILIARIOAK / ASESORES INMOBILIARIOS

Passeig de La Salle 9  
C. Sant Jordi 17  
E-43850 CAMBRILS  
Tel. 34(9)77 361567  
Fax. 34(9)77 360754

C/Iturriotz, nº 11 - Tfno. (943) 7920 48 - ARRASATE-MONDRAGON



Aste gazte

Indarrean daudenean ez dirudi ala izan behar duanik, baiña nola udaberria ala gazteareoa ez dira betirako. Orri da bizitzaren legea eta ez dago orri alde egiterik. Ala ere, eskeintzarik asko egiten digute euren bizitza laburrean.

I. Olea

Dirulaguntza-deialdiak

• 1990eko urtean hizkuntzen ikasketa zabaltzeko dirulaguntzak. Gipuzkoan bizi diren 18 eta 25 urte bitarteko gazteentzat. Europako Ekonomi Elkartean ofizialak diren hezkuntzak ikasteko. Epea: apirilaren 12a baino lehen.

• Kultur bidaiak egiteko gazte taldeentzako dirulaguntzak. OHO, LH, IEE eta UBIko ikastetxe eta gazte elkarteek eskatu ditzakete. Epeak: apirilaren 12an baino lehen (89/90 ikasturterako) eta urriaren

15a baino lehen (90/91 ikasturteko lehen hiruilabeterako).

• Haur eta gazteentzako udalekuak eta kanpamentuak antolatzen dirulaguntzak. Epea: apirilaren 12a baino lehen.

• Gazte Elkarrekin kultur azpiegiturako obrak eta ekipamenduko erosketak egiteko dirulaguntzak. Epea: apirilaren 12a baino lehen.

Bekak

• 90/91 urterako ikertzaileak trebatzeko bekak:

a) Doktoradutza-aurreko beketarako programa. Ezagupen alor orokorra. Epea: 90-04-18

b) Doktoradutza-aurreko beketarako programa. Ezagupen alor espezifikoa. Epea: 90-04-18

c) E.A.E.-ra etortzeko doktordutza-ondorengo beka-programa. Epea: 90-06-10

Lehiaketak

• Amodiozko eskutitzen I. Lehiaketa. Sariak: 50.000 ptako sari bat eta 20.000 akzesit bi. Lanak aurkezteko epea: apirilaren 15a baino lehen.

• I. Antzerki Lehiaketa gidoigile berrietzat. 15etik 25 urtera bitarteko gazteentzat. Euskaraz zein gaztelaniaz 200.000 pezetako 3 sari. Lanak aurkezteko epea: 90-04-25

• Cinema Joven'90. 26 urtetik beherakoentzat. VHS edo U-Matic BB formatoetan. Estatu Espainoleko edozein hizkuntza ofizialetan. Gutxienezko iraupena: 30 minutu. Saria: 1.000.000. Lanak aurkezteko epea: 90-05-15

Ikastaroak

• Zanko ikastaroak. Martxoaren 31n hasita, bi larunbateko 5 ikastaro (4'30etatik 6'30etara). 14 urtetik gorakoentzat.

• Mendi-ikastaroak

• Alpinismoa. Maiatzak 5/6 eta 12/13. Telera Mendikatean eta Vignemalen. Hastapena eta hobekuntza. Prezioa: 12.000. 24 plaza.

• Haitz eskalada. Apirilak 28, 29, 30 eta maiatzak 1. Eginon. Hastapena eta hobekuntza. Prezioa: 11.000. 20 plaza.

Informazio gehiago: 79 09 00

AUKERARIK ZABALENA LENTILATAN



- Gogorak
- Porodunak
- Bigunak
- Kosmetikoak
- Erabilpen iraunkorrekoak

Egoki geratuko zaizkizun garantia osoa!

Eta bestela, LENTILEN ORDAINA ITZULIKO DIZUGU

Zure betaurreko eta lentilen aseguruia dohainik

Kontzeziño kalea 6, Tfnoa: 79 25 98 Arrasate

**ETXEBIZITZAK**

- Neska behar da Donostian pisua konpartitzeko. Tfnoa: 76 43 74 (arratsaldeko ordubietan)
- Ikasleak Donostian pisua konpartitu nahiko luke. Tfnoa: 27 86 84. Astegunetan arratsaldez.
- Zigarrolan pisua erosiko nuke. Interesatuak deitu 79 62 89 tfnora.
- Errentan erdialdean pisua osatzeko pertsona behar da. Gela izango luke. Tfnoa: 79 51 49 eguerdian edo gaueko 11etatik aurrera.
- San Andresen garajea alokatu edo erosiko nuke. Jabier 79 50 53
- Bikoteak errentan hartzeko teilatupe edo pisu txikiren bat nahi genuke. Tfnoa: 79 81 76
- Aramaio kalea 4, etxabeen etxebizitza salgai. Deitu 795521 tfnora.
- San Andresen etxebizitza salgai. Errebuelta kalea 8-3.D. Telefonoa 79 97 18.
- Konpartitzeko pisu bila. Deitu 79 39 00 tfnora, gaueko 10etatik aurrera, edo (948) 24 31 95 tfnora edozein ordutan. Blankaz galdetu (ATS).
- Errentan pisu txikiren bat edo teilatupea hartuko genuke bikote batek. Ez digu axola hutsik bada ere. Tfnoa: 79 81 76
- Bi oheko logela eskaintzen da. Tfnoa: 79 07 73
- Bikote batek teilatupe bat edo pisu txikiren bat hartuko luke. Hutsik balego hobeto. Tfnoa: 79 96 90.

**LANA**

- Umeak edo pertsona zaharrak zaintzeko prest (gauetan eta asteburuetan) Tfnoa: 79 28 30
- OHoko klaseak ematen dira. Tfnoa: 79 26 19 (Itziar)
- Emakume euskaldunak umeak zaindu edo etxeko lanak egingo lituzke. Tfnoa: 79 07 73.
- Bi emakume euskaldun behar dira asteburuetan erretegi batean lana egiteko. Deitu tfno honetara 76 22 68
- Emakume gazte eta arduraduna lanerako prest. Tfnoa: 79 77 36
- REM IEE lehen kurtsorako irakaslea hartuko genuke, egunean bi orduz, klase partikularrak emateko. Interesatuak dei: 79 59 08 (Marily)
- Etxeko lanak egin eta haurrak zainduko nituzke. Tfnoa: 79 73 83
- Edozein lan egingo nuke. Tabeman, jattetxean, haurrak zaindu... Dei 79 15 35 telefonora.
- Pertsona euskalduna behar da ikastetxeetan eta etxez-etxe bideoak saltzeko. Baldintza interesgarriak. Interesatuak deitu 79 54 46 telefonora.
- Sukaldeko lanak egingo nituzke. Dei 79 43 93 telefonora
- Emakume euskalduna behar da etxeko lanak eta bi ume zaintzeko. Tfnoa: 79 06 66. Goizez.
- Kontabilitateko klase partikularrak emateko pertsona behar da. Dei 9etatik aurrera 79 99 82 tfnora. Miren.
- OHoko 7. mailako neskatilari klaseak emateko pertsona behar da. Egunean ordu betez. Tfnoa: 79 83 68. Kati.

**SALEROSKETAK**

- Brontzezko lanpara ederra salgai. Tfnoa: 792358
- Gozotegirako labe handia salgai. Bere fermentaziorako kamara duelarik. Saba markakoa. Tfnoa: 79 23 58
- BMX Torrot bizikleta salgai. 12.000 pta. Baita JOMA markako takozko zapa-tilak ere. Berri-berriak. 36. zenbakia. 1.500 pta. Dei 79 97 69 telefonora 8etatik aurrera. Inma.
- Hozkailua salgai egoera onean. Dei 8etatik aurrera 79 45 10 tfnora.
- Bi markako SONOR soporteko platerak, Bateriazko aulkia eta paiste 3000 Rude markako platoa saltzen dut. Gutxi erabili- ta daude. Telefonoa: 79 91 59 Xabier (eguerdiko 1etatik 2etara)
- R-5 GTL kotxea saltzen dut. SS-M alu- miniozko llantak. Beltza. Zapaia solarra. Telefonoa: 79 91 59. (Eguerdiko 1etatik 2etara)
- PC erostegatik Toshiba ITX-10 orde- nagailua salgai, 64 k. Baita ere Sanyo SLIM-3 magnetofonoa, 2 Yoostich eta hainbat joku. Guztira: 20.000 ppta. Tfnoa: 78 15 86.

**DENETARIK**

- Otsailaren 14ean monopatina galdu nuen Santa Barbara inguruan. "Punk Smile" idatzia du atzekaldean. Mesedez, ikusi baduzu dei 79 95 71 telefonora (Josu)

**ARRASATEN HILDAKOAK**

Portalo Gomez, Josefa. 73 urte.  
Martxoaren 21ean.

Martin Alvarez Celia. 12 urte.  
Martxoaren 25ean.

Gonzalo Rodilla Clara. 79 urte.  
Martxoaren 27an.

Valencia Lorenzo Balbina. 83 urte.  
Martxoaren 27an.

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA**

TESTUA: .....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....


.....

.....

Azoka 1,  
20.500 ARRASATE Tfnoa: 77 05 65

## Famauen ahotik

### Patxi Mendizabal; Maixutza itxi eta sekretarixo Euskal Herrixen zihher (II)



#### Sekretarixo sartzeko oposiziñuek

Ikastolan zahartzarorako aurrarapideik ez nauen ikusten eta sekretarixotzarako oposiziñuek eñ nittuen.

Hogetamaxeixen, frente popularrak eleziñuek irebazi zittuenien, bi hillebete eñ nittuen sekretarixo Mondrauen, Iraetak deskantzete gure auela eta, haren ordez.

Aramaixon be eñ nittuen zazpi hillebete. Gero gerriek urten auen eta hankak ebali biher.

#### Erriojan desterrate

Berrogetahiruen desterrau eñ ninduen Erriojara, Fuenmayorrera.

Hanguiek enterau zienien ni desterrate ninddoela, gobernadoriana fan zien; ez auiela biher desterrateko sekretarixoik eta.

Gobernadoriorrek barrez, lege barruen ninguela eta ezin auela ezer eñ.

Bost urte eñ nittuen han sekretarixo, Don Jose Maria Arizmendiarritan bitertez Markinara etorri arte. Handik hurrengo Urretxure, Urretxutik Legazpire eta jubilau nitzenien Legazpittik Mondrauera. Bakarbakarrik motxailen burdixue falta izan jat.

#### Gerrako huerfano eta mutilauendako pensiiñuek konsegiruru

Franco hill ondorien lege barrixek etorri zien eta orduen akordau nitzen Mondrauen

#### PENSIÑUEK

*"Huerfano de Guerra" eta alargune izenezkero, pensiiñue kobrau jeikiela eta Patxi Mendizabalekin egoteko esan euztien, eta halan fan nützen berana.*

*Lagunketako beti auen gertu, plaza-ekarten euzten papelak firmetako eta gaiñetikuek berak eitten zittuen. Zenbat papel eta zenbat bieje eñ bihe dien! eta sekule ez duzt xemeikoik eskatu.*

*Oiñ be urteroko rebisiñue eitteko berak ekarten duzt papelok.*

*Bueno, zenbat lagundu duzten!*

*Gregori Markaide*

mutilauiek eta, asko eozela eta mereziru auela euredako pensiiñue konsegiruteko ahalegiñek eittie.

Gerran asko sufriru nauen bai eta, neu letxe sufriru auienai lagundu gure nutzielako hasi nitzen.

Etorten zien danai esaten nutzien; esan gurozuenai eta etorri daittezela neuana.

Jende asko etorri jat; Antonio Zubizarreta, Ramon Etxebarria, Pilar Arzamendi, Udala birien dauzen mojak...eta beste asko.

Oiñ be banabil beste batzuen konsegiruteko ahalegiñetan.

#### Udalara bireko mojei kontraseiñie

Bai, hango bi mojai pensiiñue konsegiruteko tramitiek eitten nabillela, pentsau gauen ba, konsegiruten nauen egunien, atsaldeko lauretan ni bizi nazen torretako atikure igo eta handik, aulmara azal bateaz kontraseiñie eiñgo nutziela. Halan, konsegiruru nauenien, igo nauen gora eta aulmara azalorri eraitten hasi nitzen. Eta eurak goiko bentanatik lurrerañi allegetan zan izera batekin eñ euztien notizie hartu auien seiñalie.

*Estepan Plazaola eta J. M. Garai*

## Zelebrequerixak

"Birigarrua" gaitzizena zeukan bat mutilzar peto petua zan. Haren billur guztiak ezkontzian arriskuanak zien. Haren iritzi ezkontzia, Ola-ko osiñeko ur hotzetan igeri eittia bezelakoxia zan: probatzeko hankia sartu ezkerro han eztala igeriirik eitten. Han igeri egingo bada buruz behera sartu biha dala.

Haren esaera guztiak etzien egixak izango, baiña erdixak izanda be nahikua arrazoi ezkondu barik jarraitzeko. Haren teorixak zien:

"Ezkontzia, gaztetan eitten dan baliente-kerixia". "Behin neska baten ondorian ibiltziak daukan arriskua, gero bizi guztia atzetik kendu ezinik ibiltzia". Izan be ez ei dago andrian moduko guardiazibilik.

Haren mihiiñak aterik adiña maratila zeukan. Batek esan zotsan:

- Ezkondu ero zeozer eitteko ordua dok.
- Hoixe dok iñondako desio txarra.
- Ondo bizi haiz, ala?

- Askok nahi baiño hobeto. Iñok iñondako etxaukak desio onik eta horregaittik nahi juek ni ezkontzia.

Hurrengo baten beste batek:

- Tira Birigarrua, zeoze pentsatzeko ordua dok pa.

- Ai gizajua. Hik ze uste dok, pentsau barik jarraituko nebala mutilzar? Ondo pentsau ezkerro eztaok ezkontzerik.

Beste behin zera esan zotsen zirikatze aldera:

- Zer, Birigarrua, neskei errekaua eittiak billurtze hau ala ezezku hartzeko arriskuak?

- Ez mutil, errekaua eittiak eta ezezku hartziak enajuek billurtzen. Nik daukaten billurra baietz esango ete dosten dok.

Behin tabernan esan zotsen aldamenetik.

- Hi, Birigarrua, Maritxu Kriadia denpora guztian begira daukak eta uste juat hirekin gustauta dagola. Etixerako moduko neska dok eta elitzakek hiretako gaizki etorriko.

- Bai zera, Birigarruagaittik eztabik hori, bere kaixoliagatik baiño. Baiña egotia jaukak trunkil. Ni Napoleonen ustietan nabik: "Maite kontuko triunforik haundiña, ihesixa".

*Juan Martin Elexpuru*



## OMU mosaikoak

Zeramika-erakusketa: Otalora 1ean  
Biltegi berria: Meatz-Erreka

ARRASATE



KILI-KOLO

Ferrerias 21  
Tfnoa. 797006  
ARRASATE





San Juanak, 1926

**G** arai batean, San Juan jaietan, sokamuturra Magdalena errabaletik abiatzen zen. Argazki honetan garbi asko ikus dezakezue. Aranburu jantzidendan eta Karralen dendaren artean dagoen kale estuan dago aterata argazki hau. Ezker aldean, Azkontegi taberna zegoen, gaur desagertua.

Ezkerretik hasita, zutik dagoen neskatila **Mari Paz Zubialdea** dugu. Tabemako leihotik begira **Federiko Zubialdea** eta **Josefina**. Harantzago, ezker paretan dagoen emakumea, neskamea zela besterik ez dakigu. Haren ondoan, **Antonio Lasturkoa**, zezenak ekartzen zituena seguruenik. Idiskoak "Morocha" zuen izena.

Makilari eusten dion mutikoa **Carlos Igartua**, tabemariaren semea dugu, geroago istripuz hilgo zena. Neskatila **Asun Igartua**, Carlosen arreba, gaur egun Frantzian bizi dena. Sokari eusten, **Karmen Zubialdea**, "Torresena".

**VICTOR RUIZ MELGAR**

Pintorea

Erdiko kale 32, 4.



79 12 63 (9etatik 1etara eta 4etatik 8etara)

ARRASATE

**Hilbera  
kafetegia**

Urbarri Etorbidea  
ARRASATE

## Begi-flash



Bi argazki hauen artean oso minutu gutxiren aldea dago. Kontsumorako grinaren poderioz aldaketa ugari gertatu da denda-kale jendetsu honetan. Zein izan dira bitarte labur honetan gertatutako aldaketa horiek?

*ENBIDOtik hartua, ELKAR-en baimenarekin*

**ARRASATE  
PRESS**

**77 05 65**

**“PAL”**

**burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria**

Uribarri etorbidea 3,  
Tfnoa: 79 31 99

**BERANGO**

*Aroztegia orokorra  
sukaldeko altzariak  
kanpo eta barruko atearak*

Legarreko pabiloi industrialak  
(behea) Tfnoa: 79 01 92  
**ARRASATE**

Zure amasa  
arnastuz,  
zuk sufritua  
sufrituz,  
zuk ikusia  
ikusiz,  
zure minak  
nireganatuz,  
zure odola  
xurgatuz.  
zu ezin ahaztuz,  
zu biziz,  
zu nireganatuz,  
zu xurgatuz,  
laburtuz:  
**ZU MAITATUZ.**

Eguzkiarekin bat jaiki zera  
eta ilargiaz oheratu,  
lotan zeundela izar bihurtu zera,  
niri zer bide jarraitu diostadan izar.

*Jon Lekunberri*

**ITURRIOTZ taberna**

**GIRORIK**

**JATORRENA !!**

Tfnoa:79 16 04



**TITARE**

**LENTZERIA FINA**

Olarte kalea 8,  
**ARRASATE**

■ **Aizkol apustua Euskadi Irratian.** Inoiz ez dut aizkol apusturik zuzenean ikusi. Noiz edo noiz, herriko jaietan batipat, ikusi ditut aizkolariak lanean. Ez naiz aizkoraren zalea bereziki.

Igande eguerdian, berriz, irratian zer zegoen jakin barik aparailua piztu nuenean, Iñaki Elortza aurkitu nuen, Tolosan uste dut, hastear zegoen Larretxea eta Olasagastiren arteko aizkol apustuaren xehetasunak ematen.

Berehala eman zitzaion hasiera norgehiagokoari eta, hain modu bizi eta bizkorrean (entreteneagarrarian, azken finean) joan zen dena, esata-rien ahotsa, aldemeneko adituaren eritziak eta zezen-plazako giro eta zaratarekin batera, ezen hau eta bestea egiten nuen bitartean, trabesa amaitu arte, irratia- ren inguruan egon bait nintzen, tinko.

Ez dut uste ezer berririk deskubrituko dudarik Euskadi Irratiko kirol taldearen maila onaren adierazgarria dela esan badut, baina hala da. Eta Iñaki Elortzak zerikusi handia du horrekin. Zorionak.

■ **Euskadiko Futbol-Selekzioa.** Euskadi-Errumania partidua- ren bigarren denboraldia baino ez nuen ikusi, eta, tira, ezin dezaket azaldu gauza handirik neurketaz. Euskadiko taldean jende gehiegi falta zela, ordea, bai.

Gezurra dirudi Eusko Jaurlaritzaren bigarren aroaren hamar urte bete direnean, zer gutxi egin den kirol mailan. Txirrindularitzan, atletismoan eta beste hainbat adarretan ez dago euskal selekziorik, Murcia-ko Elkarte Autonomoarekin kasu, lehiatzeko ez bada, Espainiako lurraldeen arteko txapelketa konstituzionaletan, jakina.

Hortik kanpo, basamortua. Gehienik jota, Tottenham, eta bigarren edo hirugarren mailako selekzioen baten aurkako exhibizioak, edo betiko sanbolariak. Madrilen egon daiteke erruaren zati handia, baina geure artean ere bai, ez bait ditugu ideiak behar bezain argiak.

*Joxe Aranzabal*




## gusto baduzu

■ **Bihotza betean:** Serge Bourguignonek zuzendutako filmea ostiral honetan izango da, eta ez aurrekoan, guk kaleratu bezala. Bere lan eta bikote harremanaz aspertuta, neska bat Londres- a doa eta bertan modelo moduan egingo du lan, bere bizitza zeharo aldatu-ko delarik. 9etan hasita, Brigitte Bardot gogoratzeko aukera.

■ **Botak jantzita hil ziren:** Igande bazkalosterako zinea. Raoul Walsh-ek zuzendu zuen 1941ean. Antzesleak, Errol Flynn, Olivia de Havilland eta Regis Toomey. Pelikulak Custer generalaren bizitza kontatzen digu, West Pointeko akademian hasi eta Little Bighorn-eko porrota heldu arte.

■ **Ranbo II:** Honekin ere ez genuen asmatu, datorren asteazkenean emango bait du ETBk. Lehengo zatian nahiko izan ez zuenak, oraingoan bigarrena ikusteko aukera izango du. Odola eta hildakoak nahi beste. Asteazken 9etarako, beraz, Stallonerekin zita.

## bideoak



### Bizia Zuhaitzetan

Aspaldi, ugaztun talde bat zuhaitzetara igo zen bere bizi- modua garatzera. Primateak dira ugaztun hauek. Beren artean gimnasta miresgarriak, kantari nekazinak eta kultura handiko tximinoak daude.

Guzti horren berri, "Bizia lurrean" seriearen 12. kapituluan.

## OSTADAR IRRATIA

(102 F.M)

### Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)  
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasi-  
koa)

### Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

### Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako graba-  
ketak).



**B** adira urte batzuk *Jose Manuel Arriola* jubilatu zenetik. Debatik Arrasatera etorri eta 42 urtez udaltzain izan genuen. Ostiral honetan aukera paregabea izango duzue haren bizitzaren berri gertuagotik segitzeko, Jose Ramon Elorzaren **Erretratoa** saioan.

**D** atorren astelehenero programazioan, saio berria ikusiko duzue: **Medikua etxean**. *Arantxa Lizaso* eta *Bittor Irigoien* doktorea dituzue programaren aurkezleak. Arantxa Lizaso Eroskiren kontsumitzaileen kartekoa duzue eta Irigoien zarauztarrak Bergara dihartu lanean.



**E** uskararen Erabilpena Indartzeko Hitzarmena sinatu ondoren M.Karmen Garmendia, Roman Berriozabal, Gorka Knorr eta herriko zenbait agintari eta pertsonalitate izan genituen ATBren plato eta errealizazio gela ikusten. Instalazioak eta grabatutako albistegi baten zatitxoak erakutsi zitzaizkien. Denak gustora irten ziren Ugaran jatetxerantz.

asteke

## PROGRAMAZIOA

### ASTELEHENA

- 20.00 **Berriak** Aurkezlea: Koldo Rodriguez
- 20.20 **Mondrasport** Aurkezlea: Jon Andúeza
- 20.45 **Medikua etxean** Aurkezleak: Arantxa Lizaso eta Bittor Irigoien. Gaia: Beherakoak

### ASTEARTEA

- 12.00 **Berriak** (bezperakoa)
- 12.20 **Mondrasport** (bezperakoa)

### ASTEAZKENA

- 20.00 **Berriak** Aurkezlea: Koldo Rodriguez
- 20.20 **Zenbat buru hainbat aburu** Mahaingurua. Aurkezlea: Josemari Velez de Mendizabal. Gaia: "Teknologia berriak gure bailaran". Gonbidatuak: Josu Zabala, Iker Garmendia, Agustín Arrupe eta Aitor Etxebarria.

### OSTEGUNA

- 12.00 **Berriak** (bezperakoa)

### OSTIRALA

- 20.00 **Berriak** Aurkezlea: Koldo Rodriguez
- 20.20 **Erretratoa** Aurkezlea: Jose R. Elorza. Gonbidatua: *Obduli*
- 20.50 **Musikantoi** Aurkezleak: Mikel, Patxi, Pepe eta Aitor. *Red Hot Chili Pepper, Les Rita Mitsouko, Barricada, Notting Hillbillis, Hertzainak, Eddy van Hallen eta Sanny Haggart*

### LARUNBATA

- 12.00 **Berriak** (bezperakoa)
- 12.20 **Medikua etxean** (astelehenerakoa)
- 12.50 **Zenbat buru hainbat aburu** (asteazkenekoa)
- 13.30 **Erretratoa** (bezperakoa)
- 14.00 **Musikantoi** (bezperakoa)



**ENARA**  
OSAGIRRIAK

Maalako Errabala 21,  
20500 Arrasate  
Tfnoa: 79 62 32



LURRINDEGIA

**ERTZ**

OPARIETAKO ARTIKULOAK

Ferrerias 28, B. Tfnoa: 79 08 70 Arrasate



**ARIES**  
Martxoaren 21etik  
Apirilaren 20ra

Zer edo zeri ekiten diozunean burubelarri aritzen zara eta beste eginbeharrak alde batera lagatzen dituzu.



**LEO**  
Uztailaren 23tik  
Abuztuaren 23ra

Zeurekoi ari zara jokatzeko Leo. Portaera horrekin besteak zugandik aldentzea baino ez duzu lortu, eta bakarti sentitzen zara. Ez ahaztu besteak ere hor izaten direnik.



**SAGITARIUS**  
Azaroaren 23tik  
Abenduaren 21era

Berba abstraktuak erabiltzeko joera daukazu edozeinekin. Honek gaizki ulertuak baino ez dizkizu ekarriko.



**TAURUS**  
Apirilaren 21etik  
Maiatzaren 20ra

Balio handiko pertsona zarela ikustaraztea da benetan kezkatzen zaituena. Atsegina eta errespetagarria izaten saiatzen zara. Zaren bezelakoa zarela ere onartuko zaituzte.



**VIRGO**  
Abuztuaren 24etik  
Irailaren 23ra

Pertsona lasai izateko itxura aldatzen baduzu ere, urduria zara, besteak ez igartzeko, tartean langa bat jartzea komeni zaizu, bestela gurpil zoroetan murgilduta ibiliko zara.




**CAPRICORN**  
Abenduaren 22tik  
Urtarrilaren 20ra

Aspaldiko lagun horrekin adiskidetzera komeni zaizu zure helburua lortzeko. Borondaterik azaltzen den bitartean, edozer lor daiteke.



**GEMINI**  
Maiatzaren 21etik  
Ekainaren 20ra

Nortasun gorabehera handiak daukazu eta besteak ez dakite nola asmatu zurekin. Eginbehar asko daukazu eskuartean, ez larritu aterako dituzu aurrera eta.



**LIBRA**  
Irailaren 24etik  
Urriaren 23ra

Edozein alde ona eta txarra aztertzeko gauza zara eta aste honetan laguntza eske etorriko zaizu norbait. Aholkuak ematera bakarrik mugatu eta ez hartu partetik inongo ekintzatan.



**AQUARIUS**  
Urtarrilaren 21etik  
Otsailaren 19ra

Gauza berri eta originaletara joko duzu. Ilargiak, zeinu honetatik pasatzean, gizalegea eta arrazonamendua indartuko dizkizu eta lagunarteko harremanak sendotuko.




**CANCER**  
Ekainaren 22tik  
Uztailaren 22ra

Irudimenik ez zaizu falta eta amets hutsean baino geldituko ez den egitura handiko negozio batean ari zara nekea alperrik galtzen. Hobe da oinez eta segurora eta ez zaldiz eta zulora, Cancer.



**SCORPIO**  
Urriaren 24etik  
Azaroaren 22ra

Txikikeriatan ez bada ere, erruz gastatzen duzu dirua. Zure posibilitateak eta beharrak zenbaterainokoak diren neurtzen ikastea komeni zaizu Eskorpio.



**PISCIS**  
Otsailaren 20tik  
Martxoaren 20ra

Sekulako bizitasuna eta borondatea igarriko duzu. Eguzkia Pizsisen esparruan sartu bait da. Konzienteki izango ez bada ere, geldotasuna eta alferkeria alde batera laga eta aurrera.

# Gameti, S.A.

**MARRUSKADURAZKO PRENTSAK**  
**PRENTSA ESZENTRIKOAK**  
**PRENTSA HIDRAULIKOAK**  
**TORLOJODUN ERAUNSPENEZKO PRENTSA**  
**TOTXOTARAKO ZIZAIK**  
**DEFORMAZIO MAKINA BEREZIAK**

Nafarroa Etorbidea, 31 Tfnoa 79 55 00 Telefax 79 03 97  
**ARRASATE**

## baldana


- Medikuntza orokorra
  - Txertaketak
  - Kirurgia
  - Laborategia
  - X izpiak
  - Odontologia
  - Ile apaindegia
- URGENTZIA 76 27 97**

Koldo Elizalde 28, Etxebehea.  
Tfnoa: 76 27 97  
**BERGARA**

## ARRASATE PRESS

**77 05 65**

# DENDARABA



# MERKATAL ZENTRUA

Paz, Postas eta Independencia kalea Tfnoa: 26 79 83 GASTEIZ



**Eros ezazu**



**Arrasateko Talleres Meca-n**